

ATEZ ATEKOA ETA 2018KO AURREKONTUA ZALDIBIAN

Atez ateko sistema 2013ko martxoan Zaldibian ezarri zenetik urte batzuk igaro dira eta harrezkero hainbat argi-ilun azaltzen joan diren arren, nagusiena herrian kokaturiko hiru ekarpen gunetan sorturiko arazoa omen da.

Nabarmena da hiru birzikla gune horietan sistemak ez duela funtzionatzen, nahiz eta Sasietak saio ugari egin (garbiketak, sarraila berriak jarri, kartelak...). Baina arazoa ez dator soilik landa ingurunetik, izan ere, denok dakigunez, herriguneko hainbatek ere egiten du gune horien erabilera. Nola ulertu bestela sarrailak etetea edo sarea moztea bezalako ekintzak edo zaborra sarez gaintik botatzea. Horrek guztiak zer pentsa eman beharko liguke.

Hori dela eta, iaz udalak LUAR enpresa kontratatu zuen 7.804,50 €ko aurrekontuarekin azterketa bat egin eta hobekuntzak proposatzeko.

Orain, EH Bildu alderdiaren proposamena da hiru ekarpen gunetatik bi kentzea eta Bilorekoa soilik mantentzea. Horrez gain, etxola batzuk jartzea ere aurreikusten du 13.800 €ko gastuarekin eta langile bat jartzea hori guztia kudeatzeko.

Oraindik ezer erabakirik ez badago ere, itsukeria iruditzen zaigu funtzionatzen ez duen sistema batekin jarraitu nahi izatea kosta ahala kosta. Kontuan izan behar dugu iazko gastua 125.000 € ingurukoa izanik, Zaldibiako birziklatze tasa, iazko Sasietako datuen arabera, %75 dela, atez atekorik gabeko beste hainbat herritakoa baino altuagoa ez (Beasain % 75, Olaberria % 86, Ormaiztegi % 89, Urretxu % 75, Ordizia %77, Ataun %79, Zegama %76...).

Bestalde, kaskoan, bost edukiontzi kolektiboetan oinarrituriko sistema ezarriko balitz kostua asko murriztuko litzateke, 84.477,00 €/urteko, Zaldibia bezalako herri txiki batentzat guztiz kopuru garrantzitsua, gure ustez.

Gainera, aurtengo aurrekontuan ZH udal taldeak ezezkoa eman zion aurrekontu onarpenari. Arrazoi nagusia proiektu edo helburu ezak bultzaturik jokatzea litzateke. Izan ere, nekez uler daiteke aurrekontuan azaltzen den hainbat diru kopuru, esate baterako: baso erosketa Arkakan (6.700 €) ; parte-hartze prozesua (8.500 €), aldez aurretik zertarako edo zein helbururekin finkatu gabeko partaidetza prozesua; udaletxe berriaren proiektua inolako finantzazio planik azaldu gabe eta diru-laguntzarik iritsiko den eta nondik jakin gabe.

Hori bai, CUPOa dela eta, Madrilgo gobernuarekin lortutako hitzarmenaren ondorioz udaletxeari 51.630 euro etorri zaizkio, eta horiek udaletxe berria finantzatzeko erabiliko dira.

EL SISTEMA DE RECOGIDA PUERTA A PUERTA Y EL PRESUPUESTO DEL 2018 EN ZALDIBIA.

Desde que en marzo de 2013 se implantara en Zaldibia el sistema de recogida de residuos puerta a puerta, ha habido muchos claroscuros y parece ser que el problema principal radica ahora en el mal funcionamiento de los 3 puntos principales de recogida.

Es evidente que, a pesar de los muchos esfuerzos de Sasieta (cambio de cerraduras, limpiezas, carteles informativos...), el sistema no funciona. Pero el origen del problema no radica en el entorno rural, ya que muchos ciudadanos del ámbito urbano hacen uso del mismo, lo cual explica la rotura de cerraduras o la red. Todo lo cual nos debería llevar a otra reflexión.

Para solucionar el problema, el ayuntamiento contrató a la empresa Luar con un presupuesto de 7.804,50 € a fin de analizar la situación y proponer soluciones.

EH Bildu propone eliminar dos de los núcleos de recogida manteniendo sólo el de Bilore, realizando mejoras e implantando txabolas por un gasto de 13.800 € además de un trabajador que se ocupe de la gestión.

Si bien todavía nada está acordado, nos parece una tremenda obstinación el querer seguir manteniendo un sistema que no funciona y que acarrea al municipio un gasto aproximado de 125.000 €, y la tasa de reciclaje no es superior a otros municipios con distinto sistema (Beasain 75%, Olaberria 86%, Ormaiztegi 89%, Urretxu 75%, Ordizia 77%, Ataun 79%, Zegama 76%...).

Por otra parte, colocando contenedores en el casco urbano el gasto se reduce a 84.477,00 €/año, es decir, una cifra importante para un municipio tan pequeño como el de Zaldibia.

Nuestro grupo político votó en contra del presupuesto para el ejercicio 2018, porque consideramos que se actúa sin un proyecto u objetivo definido, de lo contrario difícilmente se pueden justificar compras como la de un bosque en Arkaka por importe de 6.700 €, o la cantidad presupuestada para participación ciudadana (8.500 €) sin concretar su finalidad, sin un plan de financiación para el proyecto del nuevo edificio consistorial y desconociendo por completo si llegará y de dónde, alguna subvención.

Eso sí, los 51.630 euros que ha recibido el ayuntamiento por la negociación del CUPO lograda con el Gobierno de Madrid, se emplearán para financiar la obra del nuevo ayuntamiento.

